

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Ikasle nafar bat Espainiaren ordezkari izango da Lanbide Heziketako munduko lehiaketa batean

*Diego Escribano Ott da ikaslea, Corellako Arte Eskolakoa*

Martes, 27 de septiembre de 2011

Diego Escribano Ott Corellako Arte Eskolako ikaslea Espainiaren ordezkaria izango da datorren urrian Londresen egingo den munduko "Worldskills" lehiaketan. José Iribas Sánchez de Boado Hezkuntza kontseilariak orain Madrilan lanean ari den Escribanori eta haren tutorea den Laura Sáenz irakasleari egin die harrera lehiaketan parte hartzeko Erresuma Baturako bidaia hasi aurretik.



Iribas kontseilariak Escribanori eta haren tutorea den Laura Sáezi egin die harrera

Escribanok urrezko domina lortu zuen ["Spainskills 2011" Lanbide Heziketako lehiaketan](#) diseinu grafikoaren espezialitatean. Lehiaketa iragan apirilean egin zen Madrilan. Lehiaketa horretan, brontzezko domina lortu zuen Daniel Carroza Lizarrako Zentro Integratu Politeknikoko ikasleak ere CAD bidezko Produktu Industrialen Diseinua espezialitatean.

Gainera, Erika Lagota Tuterako ETI Zentro Integratu Politeknikoko ikasleak eta Rubén Medrano Burlatako Bigarren Hezkuntzako Ibaialde Institutuko ikasleak bikaintasunaren domina bana lortu zuten Ile-apainketa eta Jatetxe eta tabernako zerbitzua espezialitateetan, hurrenez hurren, eskuratu zuten puntuazio altuagatik.

### Lanbide Heziketaren sustapena eta hedapena

Nafarroak, Madrilgo IFEMA azoka-esparruan egin ziren LHko lehiaketen 33. edizioan, sei "skills" edo espezialitateetan parte hartu zuen. Aipatutako lau ikasleez gain, Javier Vicente Panadero Iruñeko Virgen del Camino LHko ikaslea instalazio elektrikoaren espezialitatean lehiatu zen eta Rubén Echeverri Iruñeko San Juan Donibane BHko ikaslea Arotzeria modalitatean.

LHko lehiaketa horiek Hezkuntza Ministerioak sustatzen ditu autonomia erkidego guztiekin elkarlanean. Bi urtean behin 23 urtetik beherako estatu osoko ikasleak elkartzen dituzte, eta haien lanbidean onenak direnez, munduko "Worldskills" lehiaketan Espainiaren ordezkaria

izateko urrezko domina lortze aldera lehiatzen dira.

Nafarroak "Spainskills"en azken bi edizioetan parte hartu du; 2007an hiru espezialitatetan eta 2009an seitan lehiatu zen. Azken lehiaketan, Foru Erkidegoko ordezkariak, Ile-apainketako espezialitatean, zilarrezko domina lortu zuen Lisboan iazko abenduan egin zen Europako "Euroskills" lehiaketan.

Espainiak bazkide gisa parte hartzen du Worldskills lehiaketan. Erakundeak 50 herrialdetik gora biltzen ditu eta bere helburua LH sustatzea eta hedatzea da.